



**EBAZPENA, 2022ko maiatzak 16koa, Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Horren bidez hainbat ikastetxetan hutsik dauden behin betiko lanpostuak zehazten dira; lanpostuok Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako, Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan daude, eta kidego hauetakoak dira: Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako, eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak.**

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko autonomia-erkidego mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten duen Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko Aginduaren bigarren oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz (2021eko azaroaren 12ko EHAA), Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko martxoaren 14ko Ebazpenaren bidez argitaratu ziren lehiaketa horretan eskainitako behin-behineko lanpostu hutsak. Ebazpen hori, gerora, 2022ko martxoaren 17ko Ebazpenaren bidez aldatu zen

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota, eta Hezkuntzako sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko Aginduaren bigarren oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz, lehiaketa horretan eskainitako behin betiko lanpostu hutsak argitaratzen dira. Horren ondorioz,

### **XEDATU DUT:**

**Lehen artikulua.**- Argitara ematea Ebazpen honen eranskinean zein behin betiko lanpostu bete behar diren Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako, eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoko funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko.

**Bigarren artikulua.**- Interesatuak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzak 16a

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**